

Master Amaierako Lana egin eta defendatze arburuzko arautegia
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Letren
Fakultatean

Zioen azalpena:

Urriaren 1393/2007 29 errege dekretuak, 861/2010 errege dekretuak eraldatuta, IV. kapituluan, masterreko ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horiek bukatzeko, master amaierako lan bat egin eta defendatu beharko dela eta lan horrek 6 eta 30 kreditu bitartean izango dituela. Ez du lana egin eta ebaluatzeko beste xedapenik jasotzen eta hortaz, unibertsitate bakoitzak arautu behar du zein bere autonomiaz baliatuta.

Master amaierako lanen (aurrerantzean MAL) plangintza eta ebaluazio sistema guztiontzako berdina dela bermatu nahian, arautegi honek xede dauka prozedura eta irizpideak bateratzea, edozelan ere, kontuan izanda titulazio bakoitzak bere ezaugarriak dituela eta, beraz, ikastegietako batzarrek arautegi honetan egokitzapenak egin eta onartu beharko dituztela. Hala ere, arautegi honetan xedapen orokorrak biltzen dira eta masterretako ikasketetan ezartzeko esparru orokorra zehazten da.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Graduonko eta Graduondoko Ikasketetako errektoreordearen 2019ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez, argitara ematen da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Master Amaierako Lana (TFM) egiteko eta defendatzeko araudia, 2019ko maiatzaren 30eko Gobernu Kontseiluan onartua. Arau hauek ezartzen dira masterreko irakaskuntza guztiei aplikatzeko esparrua osatzen duten xedapen orokor batzuekin.

Berori onartu eta berorretara egokitu ostean, UPV/EHUren Letren Fakultateak honako arautegi hau onartzen du Akademia Antolakuntzako Batzordeak 2025eko maiatzaren 15ean eta fakultateko batzarrak 2025eko maiatzaren 21ean egindako

bileretan onetsita.

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.

1.1.- Arautegi honek UPV/EHUn ematen diren masterretako ikasketa planetan zehaztutako MALak definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu.

1.2.- Arautegi honen edukia, besteak beste, ebaluazio sistemaren, kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

1.3.- UPV/EHUren Letren Fakultateak ikastegiko akademia antolakuntzako batzordearen esku uzten du MALerako arautegi hau garatu, aplikatu eta betetzeko eginkizuna.

2. artikulua. MAL zer den

2.1.- MALa gauzatzeko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan masterreko ikasketa aldiari jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira (ikus 1. ERANSKINA). Lan autonomoa da, ikasle bakoitzak bere ekimenez egingo duena eta bere gain hartuta lana garatzeko erantzukizuna. Horretarako, zuzendari baten laguntza izango du, zeinak bideratuko duen lana egiteko eta defentsa prestatzeko prozesua.

2.2.- MALa titulazioan zehaztutako ezagutza, gaitasun eta trebetasunak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatzeko eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiarik edo etikari loturiko gai nabarmenei –normalean, bere ikasketa gaiei lotutakoei- buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzia horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen.

2.3.- MALa UPV/EHUren zeharkako gaitasunen katalogoan aipatzen diren

zeharkako gaitasunak eskuratzera ere bideratuta egon beharko da, eta arreta berezia eskainiko dio diziplina bakoitzak jasangarritasunari eta balio demokratikoei eta bizikidetzari egin diezaiokeen ekarpenari.

2.4.- MALa jabetza intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lanaren egilea izango da, MAL esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

2.5.- Oro har, MALa defendatu eta ebaluatzeko, egiaztatu egin behar da ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak matrikulatuta dituela eta, hortaz, titulua lortzeko behar diren kreditu guztiak dituela matrikulan. Language Acquisition in Multilingual Settings eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterretan ikasleek ezin izango dute MALa matrikulatu ikasgai guztiak gainditu arte.

3. artikulua.- Master amaierako lan motak.

3.1.- Master Amaierako Lanak, beti lan akademikoak izango direnak eta ikasketa planean jasotako gaitasunak eskuratzera bideratuak, ikastegiekin zehaztuko dituzten motatakoak izan daitezke. Memoria edo proiektu bat egingo da idatziz, 1. eranskinean eta erregelamendu honen 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3.3.- MALa lan akademikoa da baina, kasu batzuetan, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ere izan daiteke. Lanak eskatzen badu jardueraren bat egitea gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin, zuzendariak lanaren ondorio etikoak aztertuko ditu, araudi honen 7. artikuluan adierazitako moduan.

4. artikulua.- Master amaierako lana egiteko irizpide nagusiak.

4.1.- MALak garatu eta idazteko, ikaslea ondoko irizpideak betetzen ahaleginduko da eta horretako, lanaren zuzendariaren laguntza izango du:

a) UPV/EHUren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea, erakundearen irudi baitira.

b) Hizketa inklusiboa erabiltzea, eta generoren ikuspegia txertatzea gizakiekin zerikusia daukaten lanetan.

Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, pertsonen buruzko informazioa erabiliko da bakar bakarrik akademikoki justifikatuta badago; eta, hala eginez gero, modu anonimoan erabiliko da, eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko bermatuko da.

4.2.– Ikastegiekin zainduko dute master amaierako lanak egiten direla UPV/EHUren i3 hezkuntza ereduren arabera. Ildo horretan, erakundeek (sektore publikoa, sektore pribatua, hirugarren sektorea eta GGKEak) sustatuko dute egitea benetako beharrei edo erronkei buruzko master amaierako lanak, gizarte erronkei eta jasangarritasunaren dimentsio guztiei arreta berezia eskainiz. Era berean, 2030 EHUagendarekin lerrokatutako master amaierako lanak egitea bultzatuko dute, eta lan esparru horien berri emango dute irakasleen eta titulazioetako ikasleen artean.

4.3.– Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, master amaierako lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du MALak balio horiekin eta JGHeekin osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatu ditzake.

Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:

- Giza eskubideen eta oinarriko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoena ere.
- Genero berdintasunaren eta tratu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorri nazional edo etnikoa, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera

sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.

– Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.

– Jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifikoko bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifikoko gisa.

Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak adieraziko ditu, unibertsitateak edo ikastegiak antolatuko dituen sistemen bidez.

5.- artikulua. Matrikula eta deialdiak

5.1.- MALaren matrikula unibertsitateak matrikula egiteko ezarriko duen epe orokorrean egingo da dagokion ikasturte akademikoan zehar, da eta ikasleak, beti ere, UPV/EHUK master amaierako lanaren defentsa egin ahal izateko eskaturiko betebeharrak betetzen baditu, esleituta dituen kredituei dagozkien prezio publikoak ordainduta. Letren Fakultatea MALEk kreditu kopuru hau izango dute esleituta:

- Language Acquisition in Multilingual Settings: 12 kreditu ECTS

- Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia: 18 kreditu ECTS

- Hizkuntzalaritza teorikoa eta esperimentalak: 12 kreditu ECTS

- Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak: 12 kreditu ECTS

- Europa eta Mundu Atlantikoa: Boterea, Kultura eta Gizartea Masterra: 20 kreditu ECTS

Edozelan ere, MALaren matrikula egin ahalizateko, ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana bukatzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak Masterreko Irakaskuntzak Kudeatzeko Araudiaren arabera.

Language Acquisition in Multilingual Settings eta Euskal Hizkuntzalaritza eta

Filologia Masterretan ikasleek ezin izango dute MALa matrikulatu ikasgai guztiak gainditu arte.

Ikasturte batean MALa bakarrik egin behar duen ikasleak dagokion ikasturteko matrikula urtarrilaren 31 baino lehen formalizatu beharko du.

5.2.- Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte akademiko bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Lana kasuan kasuko ikasturteko deialdietan aurkeztu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.

5.3. -Ikasleak MAL zein hizkuntzatan egin eta defendatuko duen zehaztu beharko du defentsa-eskaera egitean, eta hizkuntza hori eguneratuta geratuko da matrikulan eta, beraz, espedientean.

- Language Acquisition in Multilingual Settings masterrean MALa ingelesez egin beharko da, egiaztatutako memoria kontuan hartuta.

- Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterrean, MALa euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez egin ahal izango da.

- Hizkuntzalaritza Teoriko eta Esperimentalean, MALa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egin ahal izango da.

- Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak Masterrean, MALa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egin ahal izango da.

- Europa eta Mundu Atlantikoa: Boterea, Kultura eta Gizartea Masterrean, MALa euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da.

5.4.- Ikastegiak, irakaskuntza antolatu eta programak egiteko irizpideak kontuan hartuta, master amaierako lanen defentsak ikasturte akademikoan zehar multzokatuta egingo ditu, hiru alditan zehaztuta, eta kontuan hartuta Master Amaierako Lana masterreko azken mailako azken lauhileko irakasgaia dela.

5.5.- MALaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraikiz itxi beharko da, eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala

bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraikiz administrazio zerbitzuei helaraztea. Bestalde, ikastegiko zuzendariaren edo dekanoren ardura da artikulu honetan jasotakoa bete egiten dela zaintzea.

6.- artikulua. Zuzendariak, hura esleitzeaz eta lanerako gaia aukeratzeaz.

6.1.- MALen zuzendariak irakasle doktoreak izango da, MALa zuzendu ahalko duten irakasleen zerrendan jasoak eta bere ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, lana egin ahal izateko beharko lukeen orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere. Zuzendariak, gutxien dela, hiru tutoretza ezarri beharko ditu MALa egiteko epean zehar.

Irakasle ez-doktoreak MALaren zuzendarikide izan ahalok dira irakasle doktore batekin batera.

6.2.- MALak gehienez bi zuzendari izan ditzake.

6.3.- Zuzendariak eta MALen bidez garatu eta landu ahal diren gaiak esleitzeko prozedura honako irizpide hauei loturik egingo da:

a) Masterreko batzorde akademikoak, matrikulatzeko epea amaitu aurretik, Master Amaierako Lanari buruzko prozedura bat idatzi eta argitaratuko du. Bertan azalduko du nola esleituko diren zuzendariak eta gaiak, bai eta lana zein hizkuntzatan egin eta defendatu ahal izango den ere.

b) Ikasleak Masterreko irakasleekin adostuko du egin beharreko lana. Behin adostuta, irakasleak GAUREn grabatuko du proposamena, ikaslearen datuak erantsiz, eta datuak zuzenak direla egiaztatu ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak proposamen hori baliozkotuko du.

6.4.- Zuzendari eta ikaslearen arteko lotura aldia MAL defendatu arte luzatuko da. MAL esleitu deneko akademi ikasturte berean ezin defenda baliteke, lotura hori luzatuko ahal da alde biak ados egonez gero edo lotura eragotziko lukeen

bestelako baldintzarik ez balego.

Lotura deuseztatzeko, alde batek edo biek nahitaez agertu beharko dute ukoa, idatziz eta behar bezala arrazoituta (XXX Anexoa), Masterreko Batzorde Akademikoaren aurrean.

7. artikulua.- Zuzendariaren eginkizunak eta bere lana aitortzea.

7.1.- Irakasle zuzendariaren ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere.

7.2.- Zuzendariaren eginkizuna da lanaren garapena ontzat ematea eta gainbegiratzea.

7.3.- Lanaren zuzendari irudiak aitortpena izango du unibertsitatearen kasuan kasuko arautegian zehaztutakoari jarraikiz.

7.4.- Zuzendariak lanaren eragin etikoa aztertuko du izan ditzakeen ondorioak zehazteko.

7.5.- Zuzendariak laguntza emango dio ikasleari:

- Lanaren egitura zehazteko.

- Iturri egokiak aukeratzeko eta erreferentziak zuzen egiteko.

- Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egin behar den lanean kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari.

Halakoetan, aholkuak emateaz gain, azalduko dio nola bete behar diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak (9. Artikuluan aipatzen direnak).

- Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen

lagunduko dio ikasleari, eta azalduko dio zer egin behar duen informazioa anonimoa izan dadin eta bermatzeko inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu.

– Lana idazteko.

– Epaimahaiaren aurrean egin beharreko aurkezpena prestatzeko.

8.- artikulua. Ondorio etikoak dituzten MALak eta UPV/EHUko Etika Batzordearen jarraibidea betetzea.

8.1.– Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldaturako organismoekin ikerketa jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, tutoreak, lana mota horretakoa dela behin identifikatuta, ikasleari lagunduko dio baloratzen ondorio etikoen garrantzia eta azalduko dio nola bete lan akademietarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen webgunean argitaratuak.

8.2.– Aipaturako kasu horietan, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, MALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak. Etika Zerbitzuak, bere aldetik, jarraibideak eta prozedurak etengabe hobetzen direla zainduko du, estandar etikoak betetzea errazteko eta betetze horren justifikazioa ahalik eta arinen egiteko.

8.3.– Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako

informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, 8. Artikuluan xedaturakoa bete beharko da informazioa anonimoa izan dadin eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko bermatzeko, baina ez da aurkeztu beharko dokumentu gehiago. Hala ere, MALean zehazki aipatu beharko da informazio iturria, bai eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko ere. Alde horiek arreta bereziz gainbegiratu beharko ditu tutoreak.

8.4.- Ondorio etikoak dituzten lanen defentsan, epaimahaiak ebaluatuko du, baita ere, bete diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak.

9. artikulua. MALa defendatzeko eskaria eta deialdi kopurua

9.1.- MALa masterreko azken mailan defendatu eta ebaluatuko da, ikasleak ikasketa planean geratzen zaizkion irakasgai guztietarako matrikula behin eginda.

Language Acquisition in Multilingual Settings eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterretan ikasleek ezin izango dute MALa matrikulatu ikasgai guztiak gainditu arte.

9.2.- Akademi ikasturte bakoitzeko, ikasleek bi deialditarako eskubidea izango dute: bata ohikoa, ekain eta uztail bitartean, eta bestea ezohikoa, irailean.

9.3.- Halaber, otsailean ere deialdi bat egongo da, arautegiak eskatutako baldintzak bete eta ohiko deialdia aurreratu gura duten ikasleentzat.

9.4.- Ikasleak, beranduen, defentsa egiteko eskatutako data baino hamabost egun lehenago eman beharko dio MALa tutoreari. GAUR bidez defentsaren eskaria egingen da. Letren fakultatearen web gunean MALerako argitaratutako egutegiarekin bat etorrira eta inoiz ez da izango defentsa baino hamabost egunetatik beherakoa. Epe hori bete ezean, ez da eskaria onartuko. MALaren defentsa eskatu eta gero, mezu elektronikoko bat jasoko du ikasleak ADDI plataformaren bidez bere lana kargatzeko, epaimahaiko kideei banatuko bazaie.

9.5.- Hizkuntza berean egin, aurkeztu eta defendatu beharko da lana. Masterra emateko erabili den edozein hizkuntzatan egin ahal izango da, tituluaren egiaztapen-memorian xedatutakoaren arabera. Egiaztatutako memoriak kontrakoa ezartzen ez badu, MAL Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko eta defendatzeko eskubidea bermatuko da. Begiratu arautegi

honen 5.3 atala.

10. artikulua. Epaimahaia.

10.1.- Epaimahaikideak, bai titularrak nola ordezekoak, Masterreko Batzorde Akademikoak izendatuko ditu, eta ikasturte bateko indarraldia izango dute (deialdiak: otsaileko aurreratua, uztaileko ohikoa eta iraileko ezohikoa). Epaimahaia zuzendariaren eremuko kideek edota antzeko arloetako kideek osatu ahal izango dute.

10.2.- Epaimahai bakoitza hiru pertsonak eta, gutxienez, ordezeko batek osatuko dute, guztiak ere MALa zuzendu dezaketen irakasle doktoreen zerrendan sartuta. Horietako hiru, gutxienez, masterrean irakasten duten sailtako bateko kide izan beharko dira. Epaimahaiko hiru kideetako bat MAleko zuzendaria izan daiteke, Masterreko Batzorde Akademikoak egoki baderitzo.

10.3.- Jakintza arlo bakoitzak behar beste epaimahai izendatuko ditu aurreikusitako MALen kopurua aintzat hartuta eta aurkezpen eta defentsarako ikasleek aukeratutako hizkuntzaren arabera. MALen defentsa egiaztapenik behar duen hizkuntza batean egingo denean, epaimahaiko kide guztiek izan beharko dute egiaztapen hori, UPV/EHUK ezarritako aukeraren baten bidez.

10.4.- Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira. Irakaskuntza kategoria eta antzintasunaren irizpidea baliatuko da epaimahaiburua eta idazkaria izendatzeko.

11. artikulua. MALaren defentsa

11.1.- Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du Master Amaierako Lana. Aparteko kasuetan, eta behar bezala arrazoituta, MALa bideokonferentziaz aurkeztu ahal izango da, baina ikastegiak berariazko baimena eman beharko du.

11.2.- Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera masterrean eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahalko da lana, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten

epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola ere, MALa autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da. Letren Fakultatean, salbuespena da Language Acquisition in Multilingual Settings masterra, non MALa ingelesez egin beharko den, egiaztatutako memoria kontuan hartuta.

11.3.- MALaren defentsa egiteko ikasle bakoitzak gehienezko denbora jakin bat izango du defentsarako, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Gero, epaimahaiko kideen galdera, argibide eske, komentario edo iradokizunei erantzun beharko die. MALaren defentsa, aurkezpena ere barne, epaimahaiaren esku hartzea eta ikasleen erantzuna XXX. ERANSKINEAN ezarritako denbora ez du gainditu beharko.

12. artikulua. Ebaluazioa eta kalifikazio

12.1.- Ikasleak behin aurkezpena egin eta gero eta zuzendariak egindako txostena (ikus 2. ERANSKINA) ikusita, epaimahaiak kalifikazioa zehaztuko du, tituluaren egiaztatzekeo memorian MALari esleitutako gaitasunak aintzat harturik.

12.2.- Epaimahaiak lana ebaluatzeko, araudi honekin batera doan 3. eranskina erabiliko da; bertan, item bakoitza 0tik 1era ebaluatuko da. 10 itemen batuketa egin ahal izateko, gutxienez 0,3ko kalifikazioa lortu beharko da item bakoitzean; beraz, itemetako batean 0.3 baino nota baxuagoarekin kalifikatzen bada, MAL suspentso gisa kalifikatuko da.

Item guztietan 0.3ko kalifikazioa edo altuagoa lortu bada, azken kalifikazioa baloratutako 10 itemetan lortutako balioaren batura eginez emango da. Azken notarako 0tik 10erako zenbakizko eskala erabiliko da, hamartar bat adierazita, eta horri dagokion kalifikazio kualitatiboa gehituko zaio:

- a) Aurkezteke (AKE).
- b) 0 – 4,9: Suspentso (S).
- c) 7,0 – 6,9: Nahiko (N).
- d) 7,0 – 8,9: Oso ongi (OO).
- e) 9,0 – 10: Bikain (B).

Deialdiren batean defentsa eskubideari uko eginez gero, "aurkeztu gabe" jarriko da.

Ohorezko matrikula emango ahal die ikastegiak, unean uneko defentsa aldia amaituta, bere MALaren defentsan 9,0 edo kalifikazio hoberik lortu duten ikasleei, beti ere ikasleen % 5eko muga inola ere gainditu gabe.

Irailaren 30etik aurrera egiten diren defentsak ezin izango dira OMrako proposatu.

12.3.- MAL ebaluatzeko eta kalifikatzeko prozesua honako urrats hauei jarraiki egingo da:

a) Epaimahaiaren saioa amaitu ostean, epaimahaiak argitara emango ditu kalifikazioak, datuak babesteko legeak agindutakoa aintzat hartuta.

b) MALen azken kalifikazioen berrikuspena eta erreklamazioa UPV/EHUren ebaluazioari buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera egingo da, baina kasu honetan, epaimahaia denez, lehenik eta behin ebaluazioaren berrikuspena epaimahaiak berak egingo du, eta, erreklamaziorik izanez gero, ikastetxeko Erreklamazio Batzordearen aurrean egin beharko da. Batzorde horren ebazpenaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenaren eta Sinplifikazioaren Administrazio Batzordean.

c) Prozesua amaituta, kalifikazioak GAUR aplikazioan jarriko dira, ohorezko matrikula emateko proposamenak izan ezik.

d) Epaimahaiak erabakiko balu lan batek ohorezko matrikula merezi duela, horretarako proposamena egingo dio idazkaritza akademikoari, defentsa egiteko aldia amaitu eta gero, ohorezko matrikulak eman daitezen, arautegi honen 12. artikuluko 2. puntuan ezarritako ehunekoan. Proposatutakoaren kopurua litezkeen ohorezko matrikulak baino handiagoa balitz, espediente akademikoaren arabera esleituko dira.

12.4.- Ikasleak gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak emango dizkio txosten batean, lana berriz ebaluatzen denerako. Tutoreari ere

bidaliko zaio txostenaren kopia bat.

12.5.- Nolanahi ere, MALeko kalifikazioak espediente akademikoan jaso behar dira beranduen, kasuan kasuko deialdia amaitu eta hurrengo 15 egunetara.

12.6.- Epaimahaiburuak bere saileko idazkaritzan aurkeztuko du zuzendariaren MAL-i buruzko txostena eta ebaluaziorako matrizea (2 eta 3. eranskinak) bi urtetan zehar bertan artxibatuko baita.

12.7. - 9 edo gehiagoko kalifikazioa lortuz gero, MALa irekian argitaratu ahal izango da ADDI biltegian, betiere ikasleak adostasuna ematen badu. Hori posible izan dadin, beharrezkoa da ikasleak, bere lana ADDI biltegiara igotzean, 4. eranskina sinatuta eranstea. Igotzen ez bada, ulertuko da 9 puntu edo gehiagoko kalifikazioa lortuz gero ez duela nahi bere lana irekian argitaratzea.

13. artikulua.- Konfidentzialtasuna.

13.1.- MALa egiteko erakunde publiko edo pribatuetako datuak erabiltzen direnean edo MALa erakunde publiko edo pribatuan egiten denean, gerta daiteke datu horiek babestu beharrekoak izatea edo isilpekoak, eta, beraz, bitarteko egokiak jarriko dira konfidentzialtasuna bermatzeko.

Bitarteko horiek konfidentzialtasun akordioan jaso behar dira, bestek beste honakoak zehaztuta: MALean izaera konfidentziala daukaten edukiak eta erakundearen baimena ikasleak MALa aurkeztu eta defendatzeko arautegian zehaztutakoari jarraituz.

Konfidentzialtasun akordioa bat badator Graduondoko Batzordeak onartutako ereduarekin, zuzenean sinatu ahalko da.

Bat ez badator ereduarekin, sinatu aurretik Graduondoko Batzordeak onartu beharko du.

13.2.- Era berean, inork MALean izaera konfidentziala daukan edukirik ikusi nahi badu, idatzi bat sinatu beharko du konfidentzialtasuna gordeko duela bermatuz.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan aurreikusi ez den edozein gai edo argitzen ez den edozein zalantza argitzeko eskumena UPV/EHUren Letren Fakultateko akademia antolakuntzako batzordeak izango du.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Honako arautegi hau urtero berrikusiko da, berori garatu edo aplikatu bitartean sor litezkeen problemak ebaztearren.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ikasleak 2018-2019 ikasturtean edo lehenago hasi baditu masterreko ikasketak, arautegi hau ezarriko zaio, bai eta arautegi hau garatzeko Doktoregoko Eskolak zehaztuko dituenak.